



21. ARAUA — FINANTZAKETA

Nazio Kontseiluak taxutuko ditu afiliatuen konfederal kuotak. Kongresoan onarturiko portzentari eta tarteen arabera.

Presupostu proktoa Nazio Batzordeak egina izanen da, zeinek Nazio Kontseiluari aurkeztuko baitio azken hitza eman dezan.

Konfederal kuota ordainketaren atzeratzeak honako ondorioak ekarriko ditu:

- Sei hilabete buru, Konfederakuntzak dokumentu eta informazioak ez bidaltzea.
- Urtebete buru, ordaintzen ez duen afiliatuaren baja ematea.

22. ARAUA — ORDEZKARITZA

Lehendakari eta, ezinbestean, Lehendakari ordea izango dira Konferakuntzaren ordezkari lege aurrean. Ordezkaritza hau Diruzainak ere eduki dezake beroni dagozkion arazoetan edo baita kasurako izendatuko lirakeen Nazio Batzordeko partaide batek edo batzuk ere.

Administratzaio aruntari doazkion erabakiak Talde Ekileak artuak izan daitezke eta ondasungoari dagozkionak Nazio Batzordeak har ditzake.

Inork ezin dezake Konfederakuntzan duen postutik protxurik atera talde edo norbere helburutarako, Konfederakuntzari arrotz zaizkion politik, hauteskunde edo bestelako ekin-tzetan.

23. ARAUA — ERAKUNDE ARTEKO INKAMILAK

Erakunde afiliatuen artean sor ditezken iskamiletan Nazio Batzordeak arbitro legez jo-katuko du. Honen erabakiak Nazio Kontseiluaren aurrean haurdipean jar daitezke.

24. ARAUA — BARNEKO ARAUDIA

Barneko Araudiak, Nazio Kontseiluak onztat emana, zehaztu eta desroilatu egiten du honako Estatutoen zeratzea.

25. ARAUA — ESTATUTOEN BERRIKUSPENA

Estatuto hau Konfederakuntzaren Kongresoak alda ditzake batere mugarik eta traba-rik gabe.

Modifikapen proposamenak Nazio Batzordeak edo erakunde afiliatuek egin ditzakete. Bigarren kasu hau bada, Nazio Batzordeari aurkeztu beharko dizkiote Kongresoaren haseta baino lau hilabete lehenago.

Aldaketa proposamen guztiak erakunde afiliatuei emanen zaizkie Kongresoaren lan ze-rrendarekin batera.

Kongresoaren erabakira aurkeztuko dituen azken testuak, Nazio Batzordeak landuak izango dira bertako elkarrizketetan jasotako iritzi eta kriterioak gogoan hartuz.

Estatuto berrikuspenari doazkion erabakiak emaniko bozen gehienegoz hartuko dira, sal-huespen batekin; Printzipio Adierazpen eta Konfederakuntzaren deitura aldaketek, eman-dako bozen bi hirureneko gehienegoa ezijituko dute.

26. ARAUA — KONFEDERAKUNTZAREN DESEGITEA

Aldez aurretik Nazio Kontseiluaren onespina duela, Konfederakuntzaren desgitearen proposapena Nazio Batzordeak egin diezaiokete gai honetarako propio deituriko Konfederal Kongreso bati.

Konfederakuntzaren desegitea Konfederal Kongresoak erabakiko du bertan emaniko bozen hiru laureneko gehienegoz, baldin eta dauden mandatu guztien erdiak baino gehiagok erabakian parte hartzen badu.

Inoiz desegitearen balitz, Kongresoak erabakiko du ondasungoaren helburua.

ESTATUTUOAK




Euzko Langilleen Alkartasuna Solidaridad de Trabajadores Vascos



PRINTZIBIOAK

ESTATUTUOAK



3. KONGRESOAN, ONARTUAK

EUZKO LANGILLEEN ALKARTASUNAREN

PRINTZPIO ADIERAZPENA

Euzko Langilleen Alkartasuna Euzkadiko langileen Euskal Sindikal Konfederakuntza da. Horregatik, bere helburua Euzkadiko langile guztiak, profesio eta profesioarte-ko elkarteetan biltzea da, beren eskubide, interesak eta nahiak aldeztu eta lortarazteko.

Etengabeko aldaketetan diharduen eta teknik eta ekonomi desarroilo maila batetara iritsia den gizarte honetan, E.L.A.-K adierazten du kapitalist sistema langilegoaren eta herrien askatasun eta aurrerapenaren kontra dagoela. Euzkadi eta Euzkadiko langileak, egituraz inperialista eta nazioz gairikoa den kapitalismo baten menpean aurkitzen dira, zeinek, botere eta erabaki zentroi dagokienez, konzentratuak dagoen produkzio, kontsumo eta kultur sistema bat inposatzen baitu. Berez ezeri jaramonik egin gabe bapateko irabazi pribatuari izan ezik, nahi eta ez morrontza eta zapalkuntza sortarazten du, langileen eta herrien eskubide, nahi eta interesak ukarazten dituzten estatal formak ezarriaz. Ondorioz Euzkadiri bere nortasuna ukatzen zaio eta bere langile klasea morrontzapean aurkitzen da.

Euzko Langilleen Alkartasuna Euskal Herriaren zapalkuntzaz eta Euzkadiko langileen morrontzaz jabeturik, Euzkadi osoaren etorkizun librearen eragile nagusienak langileak direla, beharrezkoa ikusten du langile hauek elkartu, eginkizun honen ardura jabetu eta, Euzkadiko langilegandik eta Euzkadirentzat pentsatu eta burututako politika bat lantzea.

E.L.A. Euskal Sindikal Konfederakuntza denez, Euzkadiko langileen erreibindikazio guztien defendapena berea egiten du. Horien alde borrokatzeko tresna Sindikatoa dela sinisturik, bere sindikalizazioa, lan erreibindikazioetan eta gizarte bidezko bat lortzeko borrokan oinarritzen du. Kapitalist tresnak inola onartzen ez dituelarik, eta euskal langilegoaren talde kontzientziaren adierazpen bezala, bere buruaren jabe diren gizon eta Herri libreraren gizarte baten alde jokatu du: hots, produkzio, kontsumo eta kultur tresnak langileen esku eta serbitzuan egonen diren sozialismo batetan burutua izango den gizartea.

Adierazpen honetako printzipio eta helburuen desarroiloak, empresa eta politik taldeetatik, Estatutik edo sindikatoarekin zer ikusirik ez duen edozein eraginetatik erabateko askatasuna exijitzen du. Sindikal eta politik kargoak batu-ezinak dira, askatasun honen garrantia lortzeko ezinbestekoa baita. E.L.A. K askatasun osoz zehaztuko ditu bere xedeak, programak eta ekintzak, baita ere bere borroka edo negoziaketak bidez, eta beste erakundeekin ukan ditzakeen harremanak erabaki egingen ditu.

Euzko Langilleen Alkartasunak bere izakeraren zabalera eta demokrazi zentzua adieraziz, Euzkadiko langile guztiak zabalik dago, inoren jatorria, sineskera, pentsaera edo politik aukera haintzat hartu gabe, baldin printzipio eta araudi hauek ontzat ematen baditu. Halaber garrantzizkoak dira arduraren garrantzizkoak iristeko guztien ahalbide

NAZIO BATZORDEA

16. ARAUA — KONPOSAPENA

Konfederakuntzaren zuzendaritza eta administrazio ardurak Nazio Batzordearen ardurapean dago, Estatuto hauek ematen dioten ahalmenaren barnean eta Konfederal Kongresoaren erabakiekin eta Nazio Kontseiluarekin bat datorrelarik.

Nazio Batzordea honela izanen da osatua:

- Profesio Nazio Federakuntzek aurkezturiko hautagaien artean hamabi hautatu.
- Profesioarte Herrialde Batuek aurkeztu hautagaien artean hamabi hautatu.
- uztera doan Nazio Batzordeak aurkeztutako artean gehienez hamabi hautatu.

Profesio Nazio Federakuntza bakoitzetik bi ordezkari baino gehiago ezin daiteke aukeratu lehen taldean, ez da Batzorde bakoitzetik hirutik gora bigarren taldean.

17. ARAUA — HAUTESKUNDEAK

Nazio Batzordea Konfederal Kongresoak hautatzen du.

Bi Kongreso artean bera partaideen artean hutsunerik gertatuko balitz, Nazio Kontseiluak betekoa luke.

Barneko Araudiak zehazten du:

- Nazio Batzordea osatzen duen multzo bakoitzeko hautagaiak bete beharrezko baldintzak.
- Multzo bakoitzerako hautagaiak aurkezteko era eta Kongresoak hautamodua.
- Nazio Batzordea, sortutako hutsuneak, Nazio Kontseiluak nola bete.

18. ARAUA — BILERA ETA AHALMENAK

Talde Ekilearen deiaz Nazio Batzordea hilero bi egunetako bilera eginez bilduko da. Bertako kideen hiruren baten erabakiz ere bilduko da.

Eguneko lan zerrenda Talde Ekileak zehaztua izanen da: Hala ere, Nazio Batzordeak alde aurretik ez dauden gaiak trata ditzake.

Erabakiak bozen gehiengoz hartuko dira.

Nazio batzordearen esku daude konfederal ekintzaren zuzendaritza orokorra, administrazio eta finantza eraketa, eta kanpoko harremanetan Konfederakuntzaren ordezkariak.

Erakunde afiliatuak Nazio Batzordearen egintza eta erabakien berri jasoko dute aldiari aldiro, batez ere Lan-Deya, Konfederakuntzaren aldizkari ofizialaren bidez.

19. ARAUA — LANTALDEAK

Nazio Batzordeak izendatuko ditu beharrezkoak ikusten dituen lan taldeak, iraukorak ala ez, Konfederakuntzaren funtzionamenduaren onerako.

TALDE EKILEA

20. ARAUA

Konfederakuntzaren jentzia Talde Ekilearen ahalmen eta erantzunizuna da, talde bezala Talde hau Nazio Batzordeak bere baitan aukeratua de eta beronen aurrean erantzule.

Talde Ekilearen partaide kopurua ez da hamabitik gorakoa izanen eta bilduko ditu Burua. Idazkari Nagusia, Diruzaina eta, behin behienez Buruorde bat. Talde Ekileko gainontzeko partaideak. Nazio Batzordeak ezartzen dien funtzio edo zerbitzu konkretuaren Nazio Arduradunak izena hartuko dute.

Talde Ekilearen partaide kopurua taxutzea, beraien hautapena Nazio Batzordeak eta erantzunkizun zehaztea, Kongresoan zehar egingen da.

Idazkaritza eta Konfederakuntzaren zerbitzuak Talde Ekileak zuzenduko ditu Idazkari Nagusia ordezkari dalarik, hau guztia Nazio Batzordeak jarritako erantzunkizunen mugean barnean.

Talde Ekileak Nazio Batzordeari emango dio kontu bere egintzaz eta bere esku dauden konfederal zerbitzuez.





hauetan bertan
— esaten denaren arabera Konfederakuntza desegin ahal izatea.

12. ARAUA

Kongreso arrunta hiru urtetatik iru urtetara bildudo da. Nazio Kontseiluaren oniritziz, Nazio Batzordeak deia egiten duelarik. Deia hiru hilabete lehenago eginen zaie Konfederal erakundeei bertako lan zerrenda bidaliz.

Barneko Araudiak, Nazio Batzordeak egin eta Nazio Kontseiluak ontzat emaniko Kongreso Araudiarekin osatuz, hauxe zehazten du: ordezkaritza baldintzak, eztabaidak eta bozketen iharduera, mozioen prestatze eta eztabaidatzea eta erabakiak hartzeko erak.

Erabakiak, emaniko bozen gehiengoz hartuko dira-aldekoak eta kontzakoak zenbatuz, baina Printzipio Adierazpenaren modifikatzeari dagokion puntua 25. arauaren arabera erabakiko da eta Konfederakuntza desegitearena Estatuto hauen 26. arauaren arabera.

13. ARAUA — KONGRESO BEREZIA

Nazio Batzordeak, Nazio Kontseiluaren oniritzia lortuz gero, Kongreso Berezi batetarako deia egin dezake. Dei hau egitearen erabakia Nazio Kontseiluak ere bere kabuz har dezake, baldin eta bertakoen erdiak baino gehiagok eskatzen badu.

Kongreso berezi batetarako deia ere egin daiteke baldin eta langile afiliatuen ehuneko hirurogei eta hamabost batek firmaren bidez eskatzen badu.

Deia eginerazi duten galez aparte ez da besterik erabilikko.

Araudi eta Estatutoetan azaltzen diren deiaren epeak, kasu hauetan labur daitezke hamabost egunetara gutxienez.

NAZIO KONTSEILUA

14. ARAUA — KONPOSAPENA

Nazio Kontseilua, Profesio Nazio Federakuntzek eta Profesioarteko Herrialde Baturek izendatu ordezkariak eta Nazio Batzordeko partaideak osatzen dute.

Barneko Araudiak mugatzen du Federakuntza eta Baturen ordezkari kopurua.

15. ARAUA — BILERAK ETA AHALMENAK

Nazio Kontseilua, Nazio Batzordeak deiturik, urtero bialdiz bilduko da bi egunetako bilera eginez.

Konfederal Kongresoaren orientabideei jarraituz, Nazio Kontseiluak Konfederakuntzari doazkion problema orokorrei ekinen die.

Nazio Kontseiluaren ahalmenak hauek dira:

- Nazio Batzordearen egintza kontrolatzea
- Konfederakuntzaten barneko Araudia ezarri eta aldatzea
- konfederal kuotak, Kongresoan ipinitako tarteen eta portzentaien arabera, zehaztu eta hauen banketa egitea
- Konfederakuntzaren presupostua onartzea
- Konfederakuntzako diruzainaren urteko balantzea aztertzea eta finantza kontrolarako arduradun talde bat
- Nazio Batzordekide ez diren hiru partaidek osatua izendatzea.
- bi Kongreso artean Nazio Batzordean libre gera daitezken lekuak bete eraztea.
- Kongreso Berezirako deia egitea.

Nazio Kontseiluaren bilaldien lan zerrenda Nazio Batzordeak ipinia da, eta bilaldi bakoitzaren haseran Nazio Kontseiluari aurkezten dio, nahi dituan aldaketak egin ditzan.

PRINTZIOIAK

berdina, bere programaketa eta ekintzen eratzean sindikatutako guztien parte hartzea eta bertako kideek Konfederakuntzaten bizitzaz eta hazkuntzaz ukan ditzaketeen iritzi desberdinen errespetoa.

E.L.A. langile klasearen batasuna lortzeko bidean sortzen diren oztopoak gainditzen ahalegintzen da eta batasun hau sindikal praktika askean lortu behar delakoan dago. Batasunerako prozesuan, E.L.A.—K beti gordeko die euskal langileen interesei zintzotasun osoa, berauen interesei atxikia baitago.

Gaur eguneko kapitalismoaren nazioz gaindiko estrategia gero eta nabarmenagoa denez gero, langile guztien arteko elkartasuna eta beren erakundearen arteko harreman hertsia goa langile klase ororen beharrezko premia bat da. E.L.A.—ren iritzi, nazioarteko elkartasun hau, nazio bakoitzeko sindikatoen elkarrenganako burujabetasun eta libertate onespenean oinarritu behar da, kidezko problematiketan datzalarik indartzuz joan den elkartasuna.

Euzko Langileen Alkartasuna, beraz, sindikato bat da, euskal sindikato bat Euzkadiko langile guztientzat, klase sindikato bat, kanpoko inoren baldintzapenik gabea, demokratikoa bere egituretan, batasun zalea bere asmotan eta internazionalista bere praktikan

ESTATUTOAK

1. ARAUA—DEITURA ETA EGOITZA

Konfederakuntzaren deitura EUZKO LANGILLEEN ALKARTASUNAREN NAZIO KONFEDERAKUNTZA (CONFEDERACION NACIONAL DE SOLIDARIDAD DE TRABAJADORES VASCOS) da. Siglaz E.L.A.—S.T.V.

Konfederakuntzaren egoitza Nazio Batzordeak erabakiko du.

2. ARAUA— KONFEDERAKUNTZAREN XEDEA

Bere Printzipio adierazpena oinarritzat harturik, Euzko Langileen Alkartasunak bere xedeak honela zehazten ditu:

- Euzkadiko langile guztiak profesio eta profesioarteko elkarrekin biltzea.
- Afiliatutako erakundearen batze eta koordinaketa tresna izatea.
- Langileen interesen aldeko, eta hauen artean profesio arloari doazkion interesen aldeko ekintza orokorrak antolatu eta koordinatzea.
- Afiliaturik dauden erakundearen bazkide eta administrazio jokabideak, ezinbestean, zaintzea.
- Konfederaturik dauden erakundearen ordezkari izatea

*bai instituzio eta erakunde publikoen aurrean

*bai enpresa elkarrekin aurrean, batez ere profesioarteko nazio konbeniorik eztabaibatu behar denean.

*bai nazioarteko erakundearen eta sindikal konfederakuntzearen aurrean.





Xede eta helburu hauk lor ditzan, Euskadiko Langilleen Alkartasunak:

- behar diren zerbitzuak sortu eta antolatuko ditu
- etengabeko formatze lanari ekingo dio
- formazio iraunkor baterako egokiak diren tresnak erabiliko ditu.

Nazioarteko arloan Euzko Langilleen Alkartasuna erakunde hauetan dago kide:

- Munduko Lan Konfederakuntza (C.M.T.—M.L.K.)
- Nazioarteko Sindikal Erakunde Libreen Konfederakuntza (C.I.O.S.L.—N.S.E.L.K.)
- Europako Sindikal Erakunde Libreen Konfederakuntza (C.E.S.—E.S.K.)

Era honetan langileen problemak nazioz gaindi hedatzen direnean efikazia handiagoa lortzen du.

3. ARAUA — PROFESIO ELKARTEAK

Konfederakuntzaren kide, araudi hauk eta bereziki Printzipio Adierazpena onartzen dituzten Profesio Elkartek guztiak, izan daitezke.

4. ARAUA — ANTOLAERA

Afiliapena eta kideen partehartzea tajutzerakoan, afiliatua non bizi den eta zer lantegitan lan egiten duen oinarritzat harturik egingo da.

Horrela, Euzko Langilleen Alkartasuna egitura bikoitz baten arabera antolatzen da:

- Profesio mailan:
 - *lantegi barnean Profesio Elkartean
 - *herrian edo eskualdean, Herri edo Eskualde Profesio Federakuntzetan
 - *herrialdean, Herrialde Profesio Federakuntzan
 - *nazio mailan, Nazio Federakuntzan
- Profesioarteko mailan, Profesioarteko herri, Eskualde eta herrialde Baturetan.
- Profesio Elkar-te oro bai Nazio Federakuntzaren egintzapean eta bai Profesioarteko Herrialde Baturaren agintzapean jartzen da, beharrezko eta eskubide osoko kidea izanez.

Nazio Federakuntzen eta Profesioarteko Herrialde Baturen eginkizuna mugatzea, Konfederakuntzaren zeregina izanen da.

Konfederakuntzak zenbait mailatako langileak, bere iritziz ongienik dagokion eran el-karreraztea erabaki dezake.

5. ARAUA —

Nazio Federakuntzek eta Profesioarteko Herrialde Baturek beren autonomia ukanen dute Estatuto hauen mugean barnean.

Beharturik daude Konfederakuntzari berri hauek ematera:

- *Estatuto eta Araudiaren modifikapenak
- *Beren zuzendaritza organuen osapena
- *Berauek harturiko erabakia

Era berean, argitalpen guztiak Konfederakuntzari bidaliko dizkiote.

Federakuntza edo Batura baten eragozpen edo bidegabekeriarik balego, Nazio batzordeak beharrezko neurriak hartuko ditu, batez ere kasuko Batura edo Federa-kuntzaren Kongreso edo Batzarrerako deia egitea.

6. ARAUA — PROFESIO ELKARTEEN AFILIABIDEA

Euzko Langilleen Alkartasunaren kide izan nahi duten Profesio Elkartek, Nazio Ba-tzordeak erabakitako eran egin beharko dute eskabidea. Gauza hauetara konprometatzen dira:

- heren ekintza. Printzipio adierazpenaren baitan eta Konfederakuntzaren Kongresoan hartu erabakietan oinarritzera eta baita ere Estatuto hauk onartzera.
- langile alokatuek soilki osaturik egotera
- jarritako kuotak ordaintzera
- dagokien profesio eta profesioarteko erakundeen antolaketan, zuzenketan eta finantzaketan parte hartu eta laguntzera.

Nazio Batzordeak, Nazio Federakuntzaren eta Profesioarteko herrialde baturaren iri-

tzia jaso ondoren, eskabidea ontzat eman ala baztertu egin dezake. Nazio Batzordearen erabakia Nazio Kontseiluaren aurrean hauzipean jardaiteke.

7. ARAUA

Euzko Langilleen Alkartasunaren kide diren Profesio Elkartek berei dagokien arloan autonomia izango dute, Konfederakuntzaren Estatutoetan, Nazio Federakuntzaren eta honi dagokion Herrialde Baturaren jarririk dagoena gogoan hartuz.

Hauk beren Estatuto edo Araudi modifikapenaren berri, zuzendaritza organuen osa-pena eta beren ardurapean dauden argitalpen guztien berri, Konfederakuntzari eta dagoki-en Nazio Federakuntzari eman beharko diete.

8. ARAUA — ELKARTEEN BAJA

Kideko diren Profesio Elkartek, Konfederakuntzan baja eman dezakete beren Batzara edo Kongresoaren erabakiz, finantza arazoak aldeaz aurretik ondo zuzenduz gero.

Profesio Elkar-teren batek, Estatuto hauen aurka jokatuko balu, Nazio Batzordeak honen baja ematea erabakidetzake. Erabaki hau Nazio Kontseiluaren aurrean hauzipean jar daiteke.

Baja eman duten Elkartek eskubide hauek galtzen dituzte:

- ordaindutako kuotez zituztenak
- Konfederakuntzaren, honi atxikirido organismoen eta Federakuntza eta Batuten egin-tzetan parte hartzea.
- baita Konfederakuntzaren zerbitzuez baliatzea ere

9. ARAUA — KONFEDERAL ORGANUAK

Konfederakuntzaren erakundeak honako hauek dira:

- Konfederal Kongreso, Profesio Elkartek izendatu ordezkarien Batzarre nagusi-ena
- Nazio Kontseilua, Nazio Federakuntzaren eta Profesioarteko Herrialde Baturen Batzara.
- Nazio Batzordea, Kongresoak aukeratua.
- Talde Ekilea, Nazio Batzordeak hautatua.

KONFEDERAL KONGRESOA

10. ARAUA — KONPOSAPENA

Konfederal Kongreso, kide diren Profesio Elkartek izendaturiko ordezkari-ek osatzen dute Batzara da.

Aurreko urtean kuotak zuzen ordainduak dituztenek soilki bidali ahal izango dute ordezkari-rik Kongrosora. Ordezkarien kopurua eta bozketa erak, barneko Araudiak mugatzen ditu.

Profesio Nazio Federakuntzek eta profesioarteko Herrialde Baturek, Barneko Araudiak zehazten duen ordezkari kopurua bidali ahal izanen dute Kongrosora. Hauk elkarrikete-tan parte har dezakete; baina ez dute bozik emateizan ezik.

Uztera doan Nazio Batzordekidek hitzez har dezakete parte, baina ez bozez.

11. ARAUA — AHALMENAK

Konfederal Kongresoak botere osoak beregain ditu eta bereziki:

- Nazio Batzordearen egintzei buruz aurkezturiko txostenaz iritzi ematea
- Konfederakuntzaren jokabide orokorrak zehaztea
- Konfederakuntzaren kuoten portzentai edo oinarriak jartzea
- Nazio Batzordea hautatzea
- Konfederakuntzaren Printzipio Adierazpena eta Estatutoak modifikatzea eta Estatuto

